


**EMAKUMEEN ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO
I. PLANA
ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAN**

**I PLAN
PARA LA IGUALDAD
DE MUJERES Y HOMBRES
EN LA CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA**



SARRERA	3
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA EGITEAREN PROZESUA ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAN	4
TESTUINGURU ARAUEMAILEA	8
METODOLOGIA	12
HELBURU OROKORREN DEFINIZIOA ETA TESTUINGURU KONTZEPTUALA	14
PLANA ELABORATZEKO, GAUZATZEKO ETA EBALUATZEKO ALDIA	18
EKINTZEN TAULAK	20



Arabako Lautadako Kuadrillak, bertako Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren I. Plana egitearen ondorioz, denboraldi berri bati hasiera ematen dio. Orain arte emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan jarduera arauemailea mugatua izan da eskualde mailan edo Kuadrillan, nahiz eta gure inguruan udalerrri askok Berdintasunerako Plan bat baino gehiago izan, horien artean Kuadrillako bi udalerririk, besteak beste. Hala eta guztiz ere, oraindik ez zen funtsezko pausu hori eman eskualde mailan.

Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana dokumentu arauemaile bezala aurkezten da kuadrilla osatzen duten zortzi udalerrietara zuzendutako gutxieneko eta erabateko jarduera-irizpide batzuk ezartzeko asmoz. Administrazio arlo tekniko guztientzako zeharkako lan-tresna baliagarri bat izateaz gain, herritarrentzako ondorio positiboak bultzatzea da Plan honen helburu nagusia.

Elaborazio prozesu guztiaren zehar, bata bestearekin alderatuz udalerrri hauek oso ezberdinak direla aintzat hartu da. Izan ere, ia biztanleri osoaren %80 Agurainen, Alegría-Dulantzin, Asparrenan, (gune industrializatuena) kokatzen da, %20 ordea, beste udalerrien artean sakabanatzen da, alegia, Barrundia, Donemiliaga, Burgelu, Iruraiz-Gauna eta Zalduondo (landa eremuak).

Bai Alegría-Dulantzik baita Burgeluk ere Berdintasunerako II. tokiko Plana indarrean dute gaur egun, eta aintzat hartu dira Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana egiterakoan. Baina bi udalerriek bat egin dute eskualdeko proiektu honekin, berdintasunezko jendarte bat lortzearren indarrak batzearen eta elkarrekin lan egitearen garrantziaz jabetzen baitira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana hurrengo ataletan antolatzen da:

- Arabako Lautadako Kuadrillan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana egitearen prozesuaren azalpena.
- Testuinguru arauemailean Planaren kokapena.
- Plana egiteko erabili den metodologiaren deskribapena.
- Helburu orokorren definizioa eta testuinguru kontzeptuala.
- Plana elaboratzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko aldiaren deskribapena.
- Jarduera-ardatzen, helburu estrategikoen, ekintza zehatzen, arlo arduradunen,

adierazleen, gauzatzeko ep

kribapena.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana egitearen Prozesua Arabako Lautadako Kuadrillan

Arabako Lautadako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I.Plana egiteko honako pausuak eman dira:

Politikarien eta teknikarien inplikazioa eta bultzada

Arabako Lautadako Kuadrillako politikari arduradunen aldeko parte hartzea eta bultzada garrantzitsua izan da Plana egiteko prozesua hasi zenetik. Bai kuadrillako Lehendakaria baita Lehendakariordea ere Berdintasunerako I. Plana sustatzeko taldean parte hartu dute, eta prozesuaren diseinuaren eta kudeaketaren jarraipena egin dute. Horrez gain, Lehendakari teknikiarekin, kontzejuetik eta herritarrekin ospatutako topaketa eta koordinaziorako bilera guztietan parte hartu du.

Bestalde, Kuadrilla osatzen duten zortzi udalerrietako arduradun politikoez euren inplikazioa eta lankidetzara erakutsi dute Plana egiteko unean eta eskualdeko berdintasun zerbitzuarekin koordinatzeko garaian.

Aipatutako arduradun politikoez gain, arlo ezberdinetako teknikariek osatu dute talde sustatzailea. Zehazki, talde hau honako pertsonak osatu dute:

- Berdintasun teknikariak: Kuadrillako teknikaria, Burgeluko teknikaria eta AZ Partaidetzako teknikari bat.
- Kuadrillako Lehendakaria eta Lehendakariordea.
- Kuadrillako prebentziorako teknikaria.
- Kuadrillako hiru gizarte-langileak.
- Kultura teknikari bat.
- Kultura, kirol eta gaztedi teknikari bat.
- Hiru emakume herritar.

Talde sustatzailea arlo ezberdinetako teknikariek osatzen dute Kuadrillako egitura administratiboak hainbat berezitasun dituelako. Zortzi udalerrietako teknikari gehienak 'partekatuak' dira, hau da, Kuadrilla osatzen duten udaletxeetan lan egiten duten teknikariak dira. Beraz, teknikari hauek udalerrri batetik bestera mugitzen dira etengabe.

Egoera honek arlo ezberdinetako teknikariek talde bat osatzea oso zail egiten zuen. Ondorioz, teknikariek eta politikariek kontsultatu eta gero, indarrak batzea erabaki zen, eta talde sustatzailea Kuadrillako politikariek eta prebentzio, gizarte zerbitzuak, kultura, kirola eta gaztedi arloetako teknikariek osatu zen. Beste teknikariei lehenengo topaketarako deialdia luzatu zitzaion Plana egiteko prozesua azaltzeko asmoz, eta bertan hainbat ekintza zehatz adostu ziren. Topaketa tekniko honetara guztira 14 teknikari joan ziren, 8 emakume eta 6 gizon, hain zuzen.

Azkenik, beste alde garrantzitsu bat azaldu behar da. Talde sustatzailean arlo sozialeko hiru emakumek hartu zuten parte. Ideiak ekartzeaz gain, Plana egiteko prozesu parte hartzailearen zabaltzean lagundu zuten eta era berean, ospatutako topaketa guztietan parte hartu zuten.

Berdintasunerako I. Planaren talde sustatzailearekin koordinazioa batez ere emailaz izan da, baina bi bilera ospatu dira ere bai. Bilera hauetan, dokumentua egiteko prozesuaren diseinua zehaztu eta honen jarraipena egin zen:

- Informazioa partekatu zen talde sustatzaileko parte hartzaile guztion artean.
- Prozesuaren dinamizazioa zehaztu zen, batez ere herritarren parte hartzea sustatzeari dagokionez.
- Parte hartzaile bakoitzak bere arloan prozesua zabaltzeko konpromisoa hartu zuen.
- Planan sartzeko hobekuntza-proposamenak jaso ziren.

Talde sustatzailea informatua egon da prozesu guztian zehar eman diren aurrerapausoei buruz.

Berdintasunean prestakuntza eta esperientzia duten teknikariak

Alegría-Dulantzikoko eta Burgeluko udalerriek tokiko berdintasun zerbitzua dute duela sei urtez geroztik. 2014an Arabako Lautadako Kuadrillak (udalaz gaindiko organoak) Eskualde mailan Berdintasun Zerbitzu bat ezartzearen aldeko apostua egin zuen udalerrri guztiei erabateko zerbitzu bat eskaintzeko asmoz. 2015ean berriro eskualde mailako zerbitzu bat osatu zen teknikari berriekin.

Egungo zerbitzua AZ Partaidetza enpresarekin azpinkontrataturatuta dago. Honek berdintasun arloan esperientzia handia du, eta eskarmentu handiko berdintasun teknikari tituladun batek egiten du lan Kuadrillan. Lanaldi erdiko zerbitzua da, eta teknikariak Kuadrillan eta hau osatzen duten zortzi udaletxeetan garatzen du bere lana, bakoitzaren biztanleri kopurua aintzat hartuz.

Aurrera azalduko dugunez, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako, bere 10. artikuluan tokiko administrazioek euren egitura egokitu behar dutela ezartzen du, emakumeen eta gizonen berdintasuneko politikak landuko dituen unitate administratibo bat gutxienez izateko helburuarekin. Planak jasotzen duen ekintza zehatzetako bat berdintasun zerbitzu honen iraupena egonkortzea da, bestek beste, hau indarrean dagoen bitartean Planaren gauzatzea bermatzeko asmoz.

Herritarren parte hartzea

Herritarren aldeko parte hartzea prozesuaren oinarrietako bat izan da. Herritarrei eta elkarteei zuzendutako deialdi ireki bat zabaldu zen, berdintasun zerbitzua eta Planaren elaborazioaren prozesua bera aurkezteko, eta batez ere, dokumentuan ekintza zehatzak sartzeari begira ekarpenak jasotzeko asmoz. Guztira 27 lagunek parte hartu zuten, horietatik 22 emakume eta 5 gizon zirelarik. Bertaratutako pertsonak Elkartetakoak, taldetakoak, GKEtakoak, etab. ziren. Era berean, hainbat emakumek parte hartu zuten modu pertsonalean, hau da, elkartetakoak ez direnak.

Bilera honetan I. Plana egiteko ideia asko jaso ziren, baina batez ere berdintasunaren inguruan sentsibilizaziorako ekintzak egitearen beharra sumatu zen topaketa honetan. Talde berak eskatu zuen beste topaketa batean biltzea, ekintza zehatzak aukeratu ahal izateko. Horretarako, berdintasun zerbitzua bilera horren akta bidaliko zuelaren konpromisoa hartu zuen, eta akta horretan dinamika sinple bat sartu zen. Galdeketa antzeko bat zen hori, eta bertan lehenengo topaketan jasotako ekarpenak oinarri hartuta, euren lehentasunak ezarri ahal izango zituzten parte hartzaileek.

Berdintasun zerbitzuak 10 galdeketa orri jaso zituen, guztira 25 pertsonak bete zituztelarik. Honek, alde batetik, arlo instituzionaletik kanpo eztabaida sortzea suposatu zuen, hainbat galdeketa pertsona bakar batek erantzun bazituen ere, galdeketen erdia bizpahiru lagunen arteko aurretiko eztabaida baten emaitza izan baitziren. Hauek elkartu ziren soilik dokumentua lantzeko, eta adostutako erantzun bat bidaltzeko.

Eta bestetik, Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren oinarri sendo eta parte hartzaile bat ezartzea suposatu zuen.

Herritarrekin bigarren topaketa ospatu zen eta jasotako 10 galdeketa-orrien ondorioak aurkeztu ziren. Topaketa honetara guztira 15 lagun joan ziren, horietatik 13 emakumeak eta 2 gizonak zirelarik.

Administrazio-batzarren parte hartzea

Arabako Lautadako Kuadrilla zortzi udalerrik osatzen dute, hau da, zortzi udal guztira. Lautadako herriek, bakoitza bere udal barruan sartuta badago ere, Administrazio-Batzar edo tokiko gobernu bat dute. Batzar hauen osaera honako hau da: Lehendakaria, fiel de fechos (diruzaina) eta batzarkideak. Hauek herri guztiari irekita dagoen kontzejuak aukeratzeko dituzte. Lautadan guztira 55 kontzeju (herri) daude.

Talde sustatzailea herrietako Administrazio-Batzarren parte hartzea sustatzea garrantzitsua zela erabaki zuen. Normalean ez dira aintzat hartzen prozesu gehienetan,

eta hasieran parte hartzea txikia izango zela uste bazen ere, emaitza asebetegarri izan zen. Bi deialdi zabaldu ziren, bata goizean eta bestea arratsaldean, eta guztira 18 Administrazio-Batzarretako ordezkari elkartu ziren. Horietako 5 bakarrik emakumeak ziren.

Egoeraren diagnostikoan aipatzen zen herrietako %84an Administrazio-Batzarren lehendakaria gizona dela, bakarrik %16an dago emakume bat postu horretan. Batzarkideei dagozkien ehunekoak ere esanguratsuak dira antzekoak baitira. Beraz, sexuaren arabera desoreka hau nabarmen izan zen topaketa parte hartzailean beran, baina kasu honetan ikuspegi positibo batetik jasotzen dugu, izan ere, gizonen parte hartzea lortu zen. Hauek laguntzeko prest agertu ziren eta kontzejuei zuzendutako ekintzak proposatu zituzten.

KRONOGRAMA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA EGITEAREN PROZESUA ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAN	
Informazioa jasotzea	Martxo
Kontaktua eta koordinazioa politikari eta teknikariek	Apirila
Talde sustatzailearen lehenengo bilera	Maiatzak 7
Topaketa teknikariek	Maiatzak 12
Lehenengo deialdia Administrazio-Batzarren topaketarako	Maiatzak 15
Bigarren deialdia Administrazio-Batzarren topaketarako	Maiatzak 19
Lehenengo topaketa herritarrekin	Maiatzak 22
Herritarren galdeketa-orriak jasotzea	Maiatza / Ekaina
Bigarren topaketa herritarrekin	Ekainak 17
Topaketan jasotako datuen hedapena talde sustatzaileari eta parte hartu duten taldeei zuzenduta (teknikariak eta herritarrak)	Maiatza eta Ekaina
I.Planaren zirriborroaren idazketa	Uztaila
Lehenengo zirriborroa talde sustatzaileari bidaltzea	Irailak 11
Talde sustatzailearen 2. bilera eta lehenengo zirriborroaren ekarpenak jasotzea	Irailak 24
2. zirriborroaren kontrastea Plana egiteko prozesuan inplikaturako eragileekin	Urriak 9
Behin betiko Planaren idazketa	Azaroa



Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Planak testu arauemaile asko aintzat hartzen ditu, bai autonomia mailakoak, baita estatu eta nazioarte mailakoak ere. Hurrengo legeak nabarmenduko ditugu:

1. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako (2005-2006)

Nabarmendu beharreko aldeak:

Sarreran jasotzen den moduan, *Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutuna Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuzakoa da. Izan ere, sinatzeraz, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzeraz eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzeraz gonbidatzen ditu.*

EUDEL Euskadiko Udalen Elkarrekin berretsi egin zuen Europako Gutuna. *Tokian tokiko eta eskualdeko agintariak biztanleengandik hurbilen dauden gobernu-esparruak direnez, esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraupenari zein ugalketari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko.*

Euren eskumenen eremuan, tokian tokiko eragile guztien laguntzaz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintza zehatzak jarri ditzakete abian.

Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuak arlo askotako erantzukizunak dituztenez, guzti-guztiek zeregin positiboa izan dezakete eta izan behar dute, berdintasuna pertsonen eguneroko bizimoduan eragina duten ekintzen bidez sustatu ahal izateko.

Era berean, emakumeak tokian tokiko eta eskualdeko politiken garapenean nahiz ezarpenetan bete-betean inplikatzeko badira, bizi izan dituzten esperientzietan oinarritutako ezagutzak eta sormena hartu ahal izango dira kontuan.

Berdintasunean oinarritutako jendartea ezartzeko, ezinbestekoa da tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek generoaren dimentsioa bete-betean sartzea euren politiketan, antolamenduan eta jardueretan.

2. 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Nabarmendu beharreko aldeak:

2.artikuluak aplikazio-eremua azaltzen du, *Tokiko administrazioa, haren erakunde autonomoak eta haren menpean edo hari lotuta dauden ente publikoak* aintzat hartuz.

4. artikulua jasotzen duen moduan: *Euskal Autonomia Erkidegoko osorako erakundeek zuzeneko ekintzak abiarazi baditzakete ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea lurralde historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari dagokie, lege honetan eta hura garatzeko araudian ezarritakoarekin bat.*

7. artikuluan **Tokiko Administrazioaren eginkizunak** ezartzen dira Emakumeen eta Gizonen berdintasun arloan:

a) *Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.*

b) *Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.*

c) *Toki-eremuan programak egitea, Jaurkitzearen plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.*

d) *Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.*

e) *Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.*

f) *Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.*

g) *Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.*

h) *Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.*

i) *Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.*

j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

Eginkizun horiek **berdintasun- unitate edo zerbitzu** batek kudeatu behar ditu, Legearen 10. artikuluan jasotzen den moduan:

1.– Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.

3. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen benetako Berdintasun Eragingarrirako. (azken eguneratzea 2013/07/27).

Nabarmendu beharreko aldeak:

Arazoien azalpenean, Legeak aipamen berezia egiten du bai **Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioari, Nazio Batuen Biltzar Orokorrek 1979an onetsi eta Espainiak 1983an berretsitakoa, baita 1985ean Nairobin eta 1995ean Beijinen egindako mundu-mailako konbentzioak** ere.

Aurrera dio: *Halatan, ekintza arauemailea beharrezkoa da, zuzenean edo zeharka sexuan oinarritutako bereizkeriaren agerpen guztiak borrokatzeko, oraindik ere horrelakoak dauden ginoan, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, hori lortzea eragozten duten oztopoak eta gizarte estereotipoak kenduz.*

21. artikulua 2. sailak jasotzen dut: *Toki-erakundeek berdintasun eskubidea barneratuko dute euren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako, elkarlanean arituko dira gainerako Administrazio publikoekin.*

Era berean esanguratsua da 22. artikuluan jasotakoa. *Emakumeen eta gizonen artean denbora-tarteak modu zuzenean banatzeko helburuarekin, toki korporazioek hiriko denbora-tarteak antolatzeko udal-planak egin ahal izango dituzte.*

4. Araban Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko funtsezkotzat hartzen dituen bi alde sakontzen ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planak: alde batetik, genero-mainstreaminga erabiltzea esku-hartzerako estrategia edo antolakuntzen lanerako metodoa bezala, eta bestetik, genero-ikuspegi erabiltzea errealitatea aztertzeko eta baloratzeko unean.

III. Foru Plan hau horrela egituratzen da: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantza (zortzi helburu estrategikoekin), I. Ardatza Emakumeen Ahalduntzea eta Balioen Aldaketa (sei helburu estrategikoekin), II. Ardatza Ardura Parekatuko Gizarte Antolamendua (bi helburu estrategikoekin), eta III. Ardatza Emakumeen aurkako Indarkeria (hiru helburu estrategikoekin).

5. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana

Hau da EAEan indarrean dagoen Plana Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana egiteko unean, alegia, segi beharreko jarraibideak ezartzen dituen. Horrez gain, VI. Planak jasotzen duen arabera, *Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek eta udalek beren berdintasun-planak onartu aurretik, Emakunderi bidali beharko dizkiote legearen 15.4 artikuluan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzen duen adostasun-txostena eman dezan.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana Berdintasunerako Planen beharrezko edukiak zeintzuk diren zehazten du: egoeraren diagnostikoa edo azterketa; helburuak eta ekintzak; ekintzak sustatzearen arduradunak eta teknikariak; adierazleak; kronograma; aurrekontua; kudeaketarako sistema eta egiturak; ebaluatzeko sistema eta egiturak.


Bestalde, VI. Plana horrela egituratzen da:

- Gobernantza hobetzeko 13 neurri.
- I. Ardatza. Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea.
- II. Ardatza. Gizarte antolakuntza erantzukidea.
- III. Ardatza. Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.

Aurrekari arauemaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloan

Nabarmentzekoa da Arabako Lautadako Kuadrilla osatzen duten zortzi udalerrietatik hiruk, emakumeen eta gizonen berdintasun arloan saiakerak egin dituztela. Prozesu horietako batzuk besteak baino arrakastatsuagoak izan dira. Era honetan egoera hau dugu:

- Alegría-Dulantzik duela gutxi onartu duela bere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2015-2018. Plan horretan aurreikusitako ekintzak gobernantza hobetzeko 4 neurrien inguruan egituratzen dira, baita EAEko Berdintasunerako VI. Planak ezartzen dituen esku-hartzeko hiru ardatzetan ere
- Burgelun ere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2014-2017 dute. Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko 7 neurrien eta ohiko esku-hartzeko hiru ardatzen inguruan egituratutako ekintzak zehazten ditu.
- Asparrenak Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana 2010-2014 onartu egin zuen, baina azkenean ez zen gauzatu.



Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana errealista, egingarri eta neurgarri izan nahi duten ekintza zehatz batzuk ezartzen dituen lan-tresna da. Orokorrean Plana egiteko orduan erabilitako metodologia **parte hartzean, zeharkakotasunean, zehaztapenean** eta **gardentasunean** oinarritu da.

Gainera, urteroko **ebaluazioak** egiteko mekanismoak ezartzen dira, komenigarriak izan daitezkeen hobekuntzak sartzeko asmoz.

Datuak modu kuantitatiboan (diagnostiko bat egin zen 2014an) eta kualitatiboan (hainbat herritar eta elkartekin topaketak) jaso dira. I. Plana egiterakoan aintzat hartu ditugu, batez ere, 2014an egindako diagnostikoan nabarmentzen diren bi ezaugarri. Alde batetik, prestakuntza falta eta biztanleak emakume eta gizonen artean dauden desberdintasunei eta hauen jatorriari buruz sentsibilizatzeko beharra dagoela; eta bestetik, gazteekin lan egiteko beharra somatzen dela.

Plana landu zenean, aspektu hauek herritarrekin zuzenean alderatzeko beharra aurkitu genuen, Lautadako bizilagunekin lehentasunezko ekintzak diseinatu ahal izateko eta diagnostikoan nabarmendutako gabezi horiek lantzeko. Ondorioz, topaketa parte hartzaileak antolatu egin ziren.


Positiboki nabarmendu behar da dokumentu hau egiteko orduan parte hartzea oso altua izan dela, are gehiago aintzat hartuz parte hartze mailak oso baxuak direla udalerrri hauetan sustatzen diren parte hartze prozesu gehienetan. Politikariak ados egon dira Planaren elaborazioarekin, eta teknikari gehienak ere parte hartu dute, nahiz eta hauetako batzuk proiektu hau eszeptizismoarekin hartu duten. Izan ere, indarrean dauden tokiko Planen elaborazioan ere parte hartu dute.

Baina parte hartze prozesu pozgarriena kontzejuetako Administrazio-Batzarrei eta Lautadako herritarrei dagokiena izan da. Espero zena baino altuago izan da eta gainera parte hartze aktiboa izan dugu. Ondorioz, baieztatu dezakegu Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planan jasotako ekintzak bere osotasunean adostuak izan direla.

I. Plan honen helburu nagusienetariko bat **genero ikuspegia esku-hartze arlo guztietan txertatzea** bazen ere, bai Kuadrilla beran baita hau osatzen duten zortzi udaletan ere, inguruan dauden desberdintasunak ikusgarri egitea, eta ondorioz, **ekintza zehatzak eta eraginkorrak** gauzatzeko beharra izan da gainditu nahi den erronka nagusia.

Beste arloekin koordinazioa funtsezkoa izango da, izan ere berdintasuna zeharkakotasunaren bitartez landuko da kasu gehienetan, ez soilik genero ikuspegia plan sektorialetan sartzen, baizik eta herritarrei zuzendutako ekintzak koordinatuz ere. Ezin dugu uxatu Arabako Lautadako Kuadrillan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errealitate bat delaren pertzepzio soziala dagoela. Honek agerian jartzen du, Alegría-Dulantzi eta Burgelu bezalako udalerrri batzuk salbu, ez dela nahiko landu arlo hau.

Horregatik, Plan hau egitearen **prozesua parte-hartzailea** izan behar zuen, ez soilik ezarritako ekintzak demokratikoagoak eta eraginkorragoak izateko, baizik eta herrietako eragile ezberdinekin lanean hasteko eta abiapuntutik berdintasunezko jendarte baten alde borrokatzearen beharraren mezua helarazteko. Prozesu honetan parte hartzea guztiz asebetegarria izan da. Honek erakutsi digu aipatutako pertzepzio social orokorra egon arren, sentsibilizatutak dauden eta lan asko egiteke dagoela uste duten herritarrak badaudela.



HELBURU OROKORREN DEFINIZIOA ETA TESTUINGURU KONTZEPTUALA

Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak talde sustatzailearekin koordinatuz, berdintasunean esku-hartze mapa ezarri zuen. Mapa horretan zer landu behar den eta zergatik zehazten zen. Horretarako, dokumentu hau egiterakoan indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana gidaliburu bezala erabili da. Teknikariek, Administrazio-batzarretako ordezkariak eta herritarrek ospatutako topaketa parte hartzaileetan bai gobernantzarako neurrietan baita hiru esku-hartze ardatzetan ere oinarritu gara. Topaketa horietan garrantzi handieneko esku-hartze arloak zehazteaz gain, ekintzekin lortu beharreko helburu zehatzak definitu ziren ere.

Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren helburu orokorrak, alegia, ospatutako topaketa parte hartzaile desberdinetan aztertu eta landu diren helburuak, honako hauek izan dira:

Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak ezartzea erakundeetan:

Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan euskal botere publikoen jarduera gidatu behar duten printzipio orokorretako bat da genero ikuspegia sartzea. Horrela jasotzen da 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, 3.4 artikuluan:

“Euskal herri-aginteeek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondoretarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.”

Administrazioaren jardueran genero-ikuspegia txertatzeak emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza hobetzen laguntzen du, botere publikoek berdintasunarekiko duten konpromisoa sendotuz. Berdintasunaren sustapena Arabako Lautadako Kuadrillan eta hau osatzen duten zortzi udaletan sartzeko asmoz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planak 7 neurri ezartzen ditu arlo honetan gobernantza hobetzeko.

Eskualde eta udal mailan garatutako politika eta ekintza guztietan genero ikuspegiaren pixkanakako txertatzea lortu nahi da neurri hauekin. Hau posible egin ahal izateko, Kuadrillako teknikarien eta politikarien prestakuntza garrantzitsua da, baita eguneroko administrazioaren jardueran genero ikuspegia duten irizpideak sartzea ere, arlo tekniko guztietan eragina izanik.

I. Ardatza. Beharrezkoa den balioen aldatzea eta emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala sustatzea.

Arabako Lautadako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren I. Ardatza balioen aldaketan eta emakumeen ahalduntzean eragina izan nahi du, hauek baitira oinarrizko elementuak aldaketarako eta berdintasunezko jendarte bat lortzeko. Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntzea elkarrekin landu behar dira elkarri lotuak daudelako.

Alde batetik, balioen aldaketa gabe ezinezkoa da aldaketa sozialik ematea. EAEko Berdintasunerako VI Planan jasotzen den moduan, balioek gizarte eredu bat sendotu eta justifikatu egiten dute, eta eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko eredu batera pasa ahal izateko beharrezkoa da beste balio eta printzipio batzuk garatzea.

Baina bestalde, beharrezkoa da ere bai emakumeen ahalduntzea sustatzea. Emakumeen ahalduntze kontzeptua ezagutarazi egiten da emakumeen eta gizonen berdintasun politiken arloan Nairobiko Nazio Batuen Erakundeko Nazioarteko Konferentzian, eta 1995ean berreskuratzen da Erakunde honek Beijingen ospatutako Emakumei buruzko IV. Konferentzian. Adierazpenean jasotzen da ahalduntzearen definizio ofiziala:

«Ahalduntzea eraldaketa-prozesu bat da, eta, horren bidez, emakumeak, poliki-poliki eta, batzuetan, urrats handiak eginez, historiako, politikako eta kulturako objektu izateari uzten dio, besteen objektu izateari uzten dio; hots, besteentzako izateari uzten

dio eta bere bizitzako subjektu bilakatzen da; bera da historiako, kulturako, politikako eta gizarte-bizitzako protagonista”.

Arabako Lautadako Kuadrillan duela urte batzuetatik hona Emakumeen Elkartek batzuketan dauden arren, gehienek ez dute genero ikuspegia txertatuta, eta talde soziokulturalak bezala antolatzen dira. Baina udalerritan batzutan, Barrundian esaterako, emakume gazte batzuketan hasi dira aldi berean emakume izateagatik sortzen zaizkien kezkek eta beharrak partekatzeke asmoz. Prozesu hauek erakundeetan laguntza jaso beharko lukete, ez soilik Arabako Lautadako emakumeen taldeak ahalduz eta generoan oinarritutako identitate bat garatzen hasteko, baizik eta antolatzen laguntzen dieten bideak errazteke ere, eta bide batez, erakundeei eskariak egin ahal izateke.

Bestalde, emakume etorkinen kolektiboa ez da espresuki aipatzen emakumei eta neskei zuzenduta dauden ekintza guztietan, hala ere, aintzat hartuko da inplizituki Plana gauzatzeko aldi guztian.

Oinarritzeko bi elementu hauek kontuan hartuz, hau da, balioen aldatzea eta emakumeen aldatzea, Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren I. Ardatza 2 programen inguruan egituratzen da:

- 1. Programa. Balioak aldatzea.
- 2. Programa. Emakumeen ahalduz pertsonala eta kolektiboa sustatzea.

II. Ardatza. Gizarte Antolakuntza Erantzukidean aurrera egin.

Lanaren zatiketa sexuala eta ekoizpenaren eta ugalketaren esleipen tradizionala sexu bakoitzari gure gizarte antolakuntza mantentzen sustatu du, non, alde batetik, mantenu produktiboa eta publikoa dena gehienetan maskulinoak eta gizezkoenak diren harremanen eta balioen esparru bat den; eta bestetik, zaintza eta pribatua eta etxekoa dena, gehienetan femeninoak eta emakumezkoenak diren harremanen eta balioen esparru bat den.

Azken urteotan aurrerapenak izan diren arren, eredu hau gure jendarteko eta gure herrietako emakumeen eta gizonen pentsamoldean egoten jarraitzen du, eta genero berdintasuna lortzeko zailtasunak ezartzen du honek.

Industrializatuen dauden eremuetan, lanaren zatiketa sexuala ere nabarmena da. Emakumeak merkatu produktiboan sartu egin dira azken hamarkadetan, familia unitateari baliabide ekonomikoak gehituz, baina jarraitu dute etxeko lanen eta seme-alaben zaintzaren ardura izaten. Honen ondorio lanaldi bikoitza edo hirukoitza bezala ezagutzen dena izan da.

Horregatik, Plan honen barne dauden II. Ardatzeko ekintzen bitartez esparru pribatuan gizonen inplikazioa areagotu egin nahi da, horrela sexu biek esparru produktiboari eta erreproduktiboari zuzendutako indarrak orekatuz.

II. Ardatza bi programetan banatzen da:

- 1. Programa. Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak.

- 2. Programa. Kontziliazio Erantzukidea.

III. Ardatza. Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea

Emakumeen aurkako indarkeriaren errefusa orokorrean agerikoa da gure jendartean.

4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, emakumeen aurkako indarkeria definitzen du 50. artikuluan:

“Lege honen ondoretarako, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”.

Arabako Lautadako Kuadrillak **Indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen biktimei arreta hobea emateko Jarduerarako eta Koordinaziorako Protokoloa** onartu zuen 2013an, eta Kuadrilla osatzen duten zortzi udalek berretsi egin zuten, baita Ertzaintzak eta Osakidetzak ere. Protokolo hau etengabe hobetzen eta berrikusten den lan-tresna da.

Protokolo hau Kuadrillan bizi izan ziren emakumeen aurkako indarkeriarekin zerikusia zuten gertaera garrantzitsu batzuen ondorio izan zen. Gizarte langileak prozedura bateratua eskatu zuten emakumeei zuzendutako arreta eta prebentzioa errazteko.

Protokoloa egin aurretiko diagnostikoak nabarmentzen zuen 20 emakume inguruk arreta jasotzen zutela urtero eskualdean, baina kopuru hori handitu egin da azken hilabeteetan, Plan hau egiten genuen heinean hain zuzen. Protokoloaren Koordinazio Teknikorako Mahaiaren azken bileran 20 kasu detektatu dira, baina oraingo honetan sei hilabeteko denboraldian.

Datu hau aintzat hartzen da Plana egiteko abian jarritako prozesu parte hartzaile guztiaren zehar.

III. Ardatza bi programetan banatzen da:

- 1. Programa. Sentsibilizazioa eta prebentzioa.
- 8. Programa. Detekzioa eta arreta



PLANA ELABORATZEKO, GAUZATZEKO ETA EBALUATZEKO ALDIA

Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana lau urtez egongo da indarrean, 2016-2019.

Urtero Plan Eragile bat egingo da I. Planan zehaztutako ekintzak gauzatzeko, eta urte amaieran urteroko Plan Eragilearen ebaluazioa egingo da.

Urtero gutxieneko aurrekontu bat ezarriko da Planan aurreikusitako ekintzak egiteko, baita berdintasun zerbitzuaren funtzionamendurako ere. Lehenengo urtean, aurrekontua izango da, gutxienez, 20.000 eurokoa.

Planaren ebaluazioa

Ekintza bakoitzak adierazle batzuk ezartzen ditu burutu diren ala ez jakiteko. Era berean, Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana gauzatzeko denboraldia bukatzerakoan, ebaluazio orokorra jasoko duen txosten bat egingo da aurreikusitako ekintzen elaborazioan eta gauzatzean inplikaturako guztiekin alderatuz. Beraz, Kuadrillan dauden arlo teknikoekin ekintzak gauzatzeko asmoz koordinazioa ezartzeaz gain, Planaren ebaluazioan parte hartuko dute ere.

Ebaluazio eraginkorra eta sistematizatua egiteko, urte amaieran ondoren zehazten den fitxa bat bezalako bat beteko da:

EKINTZEN EBALUAZIORAKO FITXA
I. BLOKEA. EKINTZAREN DESKRIBAPENA.

-Arloa:
-Ardatza:
-Programa:
-Helburua:

II. BLOKEA. EKINTZAREN OINARRIZKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA
-Aipamena:
-Ekintzaren garapenaren deskribapena:
-Arduraduna:
-Gauzatzeko epea:

EKINTZEN EBALUAZIORAKO FITXA
EKINTZAREN BETETZE-MAILA
- Betetze-maila: guztiz, alde bat, ezer ez.
- Ekintzaren aurreikusitako hasiera data eta iraupena / Ekintzaren benetako hasiera data eta iraupena:
-Gauzatzeko aurreikusitako aurrekontua / Azkenean gauzatutako aurrekontua:
-Aurreikusitako emaitzak / Azkenean lortutako emaitzak:
-Ekintza inplementatzeko zailtasunak:

Berdintasun politiken segimendurako egiturak

Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko, Kuadrillak talde teknikoa eta politikoa izango du bai aurreikusitako ekintzen ebaluazioa baita segimendua ere burutzeko denboraldi bakoitzean. Talde hau Plana sustatu zuten pertsona berdinek osatuko dute (gorago deskribatu da talde hau).

Bestalde, esfortzu berezia egingo da berdintasunerako kontseilu bat sortzeko gizarte eragile desberdinekin, elkarteekin edo emakumeekin. Hau lan zaila izango da Arabako Lautadan elkarten sarea ahul delako, eta emakumeen elkarte gutxi daude. Gainera, existitzen direnak ia ez dute funtzionatzen. Baina, bai ikusten dugula testuinguru berri bat dagoela, non hainbat emakume antolatzen diren noinbehinka data esanguratsuetan ekintza espezifiko batzuk aurrera eramateko asmoz. Horregatik, esfortzua emakume hauengan egongo da bideratuta hasieran, nahiz eta Elkarten parte ez izan. Izan ere, Planaren elaborazioan parte hartu zuten horietako batzuk eta emakume eta gizonen berdintasunerako arloan sentsibilizazioa dutela nabarmentzen da.

Hortaz, Planaren segimendurako eta ebaluaziorako bileretan parte har dezaten animatuko zaie bai existitzen diren elkarteetan parte hartzen duten emakumeei baita

Kuadrillako hainbat udalerrietako emakumeen talde berriei ere. Horrela, aurrerago berdintasunerako kontseilu bat sustatzeko eskualde mailan.

Arabako Lautadako Kuadrillako eta hau osatzen duten zortzi udaletako arloak

Honako hauek dira Arabako Lautadako Kuadrillako eta hau osatzen duten zortzi udaletako arloak:

- Berdintasuna
- Gizarte zerbitzuak: gizarte langileak, inklusio soziala, prebentzioa.
- Inguru giroa.
- Hirigintza
- Ogasuna
- Kontratazioa/Enplegua
- Euskara
- Kirola
- Kultura
- Gaztedia
- Idazkaritza orokorrak
- Zerbitzu juridikoa

Gainera, arreta berezia merezi dute Landa Eremuko Garapenerako Elkartea- ADR Lautadak, eta Kuadrillako Merkatarien eta Industrialarien Elkartea ACICSAk, izan ere, biek eginkizun garrantzitsuak betetzen dituzte eskualdean.

ADR Lautadaren helburua landa eremuko biztanleen bizi baldintzak eta zerbitzuak hobetzea da, eta bereziki, parte hartzeko eta elkar lanean aritzeko bidea eskaintzea landa eremuko garapenean inplikaturik dauden sektore guztien artean. Gainera, eskualdeko toki administrazioekiko harremanak kudeatzen ditu, baita landa eremuko garapenerako programak egin eta gauzatu ere.

Bestalde, ACICSA Kuadrillako Merkatarien eta Industrialarien Elkartea (**Lautada Bizirik ACICSA**) Arabako Lautadako merkataritzako, ostalaritzako, eta beste zerbitzuakiko 62 enpresek osatzen dute. Hauek batu egin dira elkarte hau sortzeko eta eskualdeko jarduera komertzialaren eta aisialdiaren onurarako lan egingo dutelaren konpromisoa hartuz.

Berdintasun zerbitzua

Zerbitzua eskualde mailan eskaintzen da, eta Planan aurreikusitako ekintzak bultzatzearen arduraduna izango da. Gainera, Berdintasun teknikariaren eginkizunak lortzeko bideratuta egongo dira, alegia, 4/2005 legeak tokiko erakundeentzat ezartzen dituenak. Beraz, teknikariak eginkizun hauek izango ditu:

- Berdintasun arloan urteko programazioa diseinatzea.
- Planan jasotako ekintzak eta ekintza positiboko beste batzuk.
- Estatistika eguneratuak egokitzea eta mantentzea.
- Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko ikerketak egitea.
- Tokiko ekintzak egitea emakume eta gizonen arteko deberdintasun egoerari buruz sentsibilizatzeko.
- Tokiko arauak jarraitzea eta hauek emakume eta gizonen berdintasunaren printzian oinarrituta aplikatzen direla zaintzea.
- Herritarrei informatzea eta orientatzea, eta bereziki bereizkeria anitza jasaten duten emakumeei.
